

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZIGOITIKO UDALA

Jendaurrean jartzea udal igerilekuaren erabilera tasa ordaindu behar dutenen 2018ko errolda eta hura ordaintzeko epea

Udal igerilekuaren zerbitzua ordaindu behar dutenen 2018ko errolda egin da, eta jendaurrean jartzen da, interesdunek egoki jotzen dituzten erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, hamabost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Agiriak interesdunen eskura daude udal idazkaritzan, jendeari harrera egiteko orduetan.

I. Ordaintzeko epea

a) Borondatezko epea: 2018ko ekainaren 1etik uztailaren 31ra.

B) Premiamendu aldia: 2018ko abuztuaren 1etik aurrera, administrazio premiamenduko betearazte bide administratiboa abiarazita eta dagokion erreklama aplikatuta (otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra, Arabako zergena, 28. artikulua).

II. Ordaintzeko lekua eta modua

A) Bankuetan helbideratutako ordainketak:

Ordainketa aurreko urteetatik helbideratuta daukatenek ez dute beste izapiderik egin beharrik, baldin eta helbideratuta duten banku kontua berbera bada. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak:

Ordainketa helbideratuta ez dutenek udal bulegoetan ordaindu ahal izango dute, kreditu txartelarekin, borondatezko epean, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara. Era berean, ordainketa dirutan egin daiteke, udalak Kutxabanken eta Laboral Kutxan dituen kontuetakoren batean.

III. Gomendioak

Nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak Zigoitiko Udalean izapidetu beharko dira.

Hori guztia jakitera ematen da jende orok jakin dezan.

Ondategi, 2018ko maiatzaren 9a

Alkatea

IOSEBA MIKEL LAS HERAS